

Zazpi akatsak

jausitxa egon zan letria ipini dot bere lekuan

Guk asmo bat ta Jangoikuak beste bat. Beti akats ortografiko, linguistiko edo historikoen bila, orraztu eta orraztu testuak, eta askoz ere akats larriagoan erori omen ginen. Azalpenak eta esandakoak ez zirenez nahikoak izan, hementxe ezkerretara duzue del Valle de Lersundiren familiaren gutuna; baita Ugartetxea familiarekin adostutakoa ere.

Ezusteke eta disgustu handia hartu genuen familia kexa horrekin etorri zenean, guk idatzi eta adierazi nahi izan genuena guztiz kontrakoa baitzen. Horregatik eztabaidarekin jarraitzeko asmorik ez dugun arren, berriro ere esan beharrean gaude, gure atalaren asmo bakarra Joaquinek –eta beste batzuek– egindako lana eskertzea zela. Alabantza eta esker ona!

Familia minduta sentitu zen, negarrak negarrari, baina ez zen B.T. artikulua errua izan, gu B.T. esaeraren kontra agertu bait ginen. Aurreko Kurikean duzue artikulua, irakurleek epai gaitzatela.

Akatsetatik ikasten omen da, akats honetatik asko ikasi dugu, ez zaigu erraz ahaztuko, ez.

AKERRAK ADARRAK OKERRAK DITU.



*Errare humanum est,
perseverare diabolicum*

